

BAZKIDE GARRANTZITSUAK

Gure enpresak aliantza estrategiko batzuk izango ditu:



Gure opilak egiteko, aliantza bat izango dugu GUREAK enpresarekin, non gure langileak izango diren. Kontratu honen bidez, egoera ahulean dauden kolektiboetan dauden pertsoneri lagundu ahal izango diegu, eta, horrela, lan duina eta benetakoa izango dute, hau da gure kafetegian opilak egiteko ardura eta lana izango dute.



Gure kafea kalitate onekoa izango da, oso ondo landua eta teknologia berritzailearekin egina baitago. Gure kafea ecofriendly-a da, hau da, ingurumena errespetatzen du bere sortzeko prozesuan eta ez du ez kontserbagarririk ez antzekorik



Gure aplikazioaren bitartez, gure bezeroak behar duten informazioa aurkituko dute, hau da, aplikazioan sartzearekin kafetegian ze mahaiak erabilgarri dauden ikusteko gai izango dira. Aplikazioari dagokionez, aurrera eraman ahal izateko, enpresa bat kontratatuko dugula aipatu behar da, aplikazioa sortzen laguntzeko. Horretaz gain, enpresa horrekin aliantza bat egingo dugu, non bakoitzak onura batzuk izango dituen, hau da, gure enpresak aplikazioa saltzeko aukera izango du, irabaziak edukiz. Aliantzatutako enpresak aldiz, guk aplikazioa saltzean, ehuneko zati bat beraientzako izango da.